



Bermeoko uretan dagoen uhartearen eraginez jaiotako hainbat kontzeptu bildu ditu Poyok bere dokumentalean. TXUSPO POYO

Txuspo Poyo sortzaileak 'Izaro' luzemetraia estreinatu du aurtengo Donostiako Zinemaldian. Dokumentalean Izaro irlaren eta bere eraginaren inguruan dihardu.

Izarotik Izarora hedatuz

Lander Unzueta

Lekerikabeaskoa Bermeo

Kaioek euskaraz ohiukatzen duten munduko toki bakarra Izaro irla dela esaten dute. Urdaibai biosferako erreserba barruan kokatua, Bermeo, Munda-ka eta Elantxoberekin harreman estua duen uhartea da Izaro. Kostaren aurrean dagoen irla txiki honen inguruko historiak, erlijioak eta mitologiak gaur egun ere pertsona asko erakartzen eta horriengan eraginaren bat egiten jarraitzen du.

Horietako bat Txuspo Poyo zine zuzendari altsasuarra izan da. 1991. urtean ezagutu zuen irla, eta orduan berarekin eta adierazten duenarekin liluraturik egon da. 2012an hasi zen Poyo Izaroren inguruko lana sortzen. Urteak joan ahala, proiektua garatuz eta aldatuz joan da. Irlarekin hasitako lanak bere jatorria, iragana eta etorkizuna bildu ditu,

Izaro izenak berak denboran zehar hartu dituen esanahi eta erabilpenetan murgilduz.

Modu horretara jaio da *Izaro* izeneko dokumentala. Orain dela bost urte hasitako proiektuari aurten eman dio bukaera Poyok, era ezin hobean aurkeztuz: joan den irailean egindako Donostiako 66. Zinemaldian. Zuzendariak azaldu duenez, dokumental bezala aurkeztu du, baina saiakera bezala hartzen du berak: «Urteak pasa ahala material ugari batzen eta asimilatzen aritu naiz. Hori landuz sortu dut dokumental hau. Hala ere, dokumental bezala definitu beharrean, saiakera bat dela esango nuke, ideien nahasketak bat».

Izarotik jaioa

Bost urte luzetan zehar Poyok buruan zeukana etengabe aldatzen joan da, «su geldoan prestatzen». Izaro irla saiakeraren iturria dela esan daiteke, baina protagonista bera, irlaren izena da.

Horrela izanik, proiektioan Izarorekin harremana duten edozein motatako ideiak ikus ditzakegu: pertsonak, Bermeoko abesbatza, itsasontziak edota Izaro Films zine ekoizlea, besteak beste. «Bakoitzak bere ideia eta kontzeptu propioa dauka Izaroren in-

Hiru ardatz nagusi ditu dokumentalak: Izaro uhartea, izen bereko itsasontzia eta Izaro Films ekoizlea

guruan. Irlaz gain, hainbat Izaro daude munduan. Izen propioa da, bai emakumeena eta baita gizonezkoa ere, baina ez da hor gelditzen. Taldeak, elkarteak, zinema ekoizleak, itsasontziak... asko dira Bermeoko irlaren izena bereganatu dutenak», azpimarratu du Poyok.

Beraz, uhartea bera den iturri horretatik abiatuta, Izarok adierazten duen «memoria, identitate eta ondarearekin» egin du lan

zuzendariak, ezertara mugatu gabe.

Hasieratik igartzen da hori: dokumentalaren lehen segundotan printzipioz harreman askorik ez daukaten elementu desberdinak ikusiko ditugu-eta: Madrilgo Windsor eraikina, Seychelleetako hondartzak, baleen gorpuak, hezurdurak edota maketak, eta baita uhartearen aurrean urtero Madalen Egunean bermeotarrek egiten duten teilaren jaurtiketa ere. Izan ere, 2014. urtean Bermeoko alkateak «honaino heltzen dira Bermeoko ituginak» esaten zuen bitartean itsasora jaurtitzen zuen teila Poyok berak sortutakoa izan zen. Halere, hasiera batean elkarren artean deskonektaturik daudela diruditen leku edota kontzeptu horiek jatorri berbera partekatzen dutela ikusten joango gara.

Zuzendariaren hitzetan, dokumentalak hiru ardatz nagusi ditu: Izaro uhartea bera, Seychelle uharteetako itsasoetatik nabiga-

tzen ari den *Izaro* itsasontzia, eta bere zintak uhartearen irudiarekin hasten zituen Izaro Films ekoizlea. Ardatz horietatik abiatuta, *Izaro* izenaren iragana eta orainaldia ezagutzera ematen ditu zuzendariak, eta aldi berean, zuhaitz bateko adarrak izan balira moduan, beste hainbat istorio labur kontatzeko aprobetxatzen du sortzaileak.

Poyok azaldu duenez, ez du gidoi batekin lan egiten, eta Zinemaldira eramandako zintan azal dutakoa urteak pasatu ahala azal dutako eta aurkitutako ideien batuketa da. «Finkatzen doala, ideiak forma hartzen doazela, hasten zara buru-belarri proiektuarekin. Askotan dokumentala bertan behera geldituta geratu da, baina beti bueltatu naiz ideia berriekin», azaldu du.

Soinu banda bermeotarra

Dokumentalaren sortze ibilbidean, esan bezalaxe, Izarorekin nolabaiteko harremana, hurbilekoa ala urrunekoa, duten edozein motatako kontzeptu, ideia, pertsona edota elkarteek parte hartu dute. Horren beste adibide bat: Bermeoko Izaro abesbatzagaz batera egin zuen lan Poyok.

2013. urtean hurbildu zitzaizen saiakeraren zuzendaria Alex Mendizabal musikagileagaz batera. Hortik aurrera, «inprobisazio lan bat» sortu zuten, Mendizabalek gidatuta. Azaldu dutenez, sortutako soinu banda benetan berezia izan da, ez da-eta ohiko abes- tiez osatzen: talde bermeotarrak baleen oihuak gogora ekartzen dituen zarataz osatutako soinuak erabili zituen Poyoren dokumentalaren soinu banda girotzeko.

Biotz Fradua abesbatzako zuzendariaren hitzetan, «ohore handia» izan da Bermeorekin eta abesbatzarekin hain harreman estua eta zuzena duen proiektuaren parte izatea. «Ez genuen espero Zinemaldia bezalako jaialdi garrantzitsu batean auzaltzea», dio Fraduak.

Hala ere, Izaro eta bere oinordekoen ibilbidea ez da Zinemaldian soilik geratuko. Dokumentalaren zuzendariak nabarmendu duenez, *Izaro* filma ikusteko aukera ederra edukiko dute gaurtik hasita Bilbon egiten duten Zinebi jaialdira hurbiltzen direnek.

Zehazki, azaroaren 13an, aste- artearekin, emango dute dokumentala Bilboko Kale Nagusian dagoen BBK aretoan. Sarrera doakoa izango dela argitu du zuzendariak, era horretara hala nahi duen guztiari ezagutzen ez dituen Izaro horien berri eman ahal izateko.